

Alkate bera hautatu dute
oraingoan ere.

Alkatea bera etorri zaigu
harrera egitera.



Bi eratara erabili dugu **bera**.

Batean, **bera**k hauxe adierazten du: aldez aurretik ezaguna den erreferente bat eta izen-sintagmarena izaki berbera direla.

Alkate bera hautatu dute.

(Lehengo bera)

Bestean, enfasia da, soilik:

Alkatea bera etorri zaigu harrera egitera.

(Ez zinegotzi bat, ez alkatearen ordezkari bat, alkatea baizik)



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea



Bigarren kasu horretan, aposizioan doa **bera**, eta kasu-marka errepikatu egiten da.

- Ane **bera** etorri zaigu aireportura bila.
- Joxek **berak** eman zidan albistea.
- *Baldin egin balitz euskaraz hainbat liburu, nola egin baita latinez, frantsesez edo bertze erdaraz eta hizkuntzaz, haiek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere; eta baldin hala ez bada, **euskaldunek berek** dute falta, eta ez euskarak.* (Axular, *Gero*, 1643)
- Deabruari **berari** ere ez zitzaion horrelakorik bururatuko.



- *Nola legeak apezei berei manatzen baitzioten Tenploan zauden umexurtxen aita-orde izatea, apezek artha hartu zuten Mariaren egitekoez, eta hek bilhatu zioten behar zuen laguna. Apezek beraz hautatu zioten Josep.*
(Joannateguy, *Sainduen bizitza*, 1890)
- Noiz arte areagotu produkzioa eta kontsumoa gizakiaren beraren barne-erroetan eragin kaltegarriak sortu gabe?
- Presidentearekin berarekin mintzatuko dira gaur.
- Ikasleekin berekin adostu genuen egitasmoa.
- ...



Lekuzko kasuei dagokienez, hala ere, bi tradizio ditugu:

Mendebaldeko tradizioa

- Han **bertan** gelditu ziren.
- Gaurtik **bertatik** hasiko gara zeregin horretan.
- Piztiaren haitzulora **bertara** hurbildu zen eta...

Ohartxo: Ekialdean **bertan** eta **bertatik** badira, baina **orduantxe** eta **orduantxetik** esanahia dute.



Ekialdeko tradizioa

- *Holaxet iraganik uros atsaldea, **han berean** jin zauku afaltenorea.* (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 1976)
- Heldu den **igandetik beretik** hasiko gara zuk erranaren egiten.
- Heldu zen mutikoa, bada, bere bi anaiak larrutu zituzten ostatu **hartara berera**, eta...



Erakusleak tarteko direnean, beste bi tradizio ditugu, lehen eta bigarren gradukoei dagokienez:

	OROKORRA	MENDEBALDEKOA
Absolutiboa	<p>hau bera hori bera</p>	<p>hau berau hori berori</p>
Ergatiboa	<p>honek berak horrek berak</p>	<p>honek beronek horrek berorrek</p>
Datiboa	<p>honi berari horri berari</p>	<p>honi beroni horri berorri</p>
...

Hirugarren gradukoak molde berekoak dira bietan:
h(ur)a bera, har(e)k berak, hari berari



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



Orokorra

- Ipuin hau **bera** kontatzen da mundu osoan.
- Joera hori **bera** izango da 2009an.
- Ontzi honek **berak** eramango gaitu Falkland uharteetara.
- Raffarin horrek **berak** hamaika aldiz errepikatu du ez direla gauza guziak Parisetik manatu behar.
- Ongarri mota honi **berari** ere inaurkin deitu izan zaio baserrian.
- Beti gobernuaren alde baina **gobernu horri berari** ximiko zenbait ere eginez.



Mendebaldekoa

- Hurrengo batean **gai hau berau** aztertzen jarraituko dugu.
- Duela lau urte, 100 euroz gainera izan zen **akzio hori berori**.
- —Tren **honek beronek**, bueltan etortzean, palpalean ipiniko dik makina. Orduan, igo hadi azken bagoian.
- Xakean, behin mugimendu bat eginez gero piezaren batekin, mugimendu **horrek berorrek** patu bat markatuko dio jokalariai.
- **Bilkura honi beroni** eman behar nizkioke eskerrak, aitzakia eman baitit aspaldiko adiskideekin maiseaketan ibiltzeko.
- Merkantilismoa, benetako doktrina baino areago, praktika multzoa izan zen, eta berehala kondenatu zuen pentsamendu ekonomikoak. Smithengandik dator gaur egun oraindik ere duen irudi txarra (...). **Irudi horri berori** eusten dio joera liberalak.

(Jacques Adda, *Ekonomiaren Globalizazioa*. Itzul.: Koro Navarro, 2003).

